



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko maiatzaren 27a

60. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Mugikortasun Jasangariaren Plana onets dezan eta Bizikletaren Nafarroako Kontseilua sortzea bultza dezan. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da COVID-19aren balizko berragerpenen aitzineko kontingentzia Plan bat taxutu dezan, parte-hartzailea eta inplikaturako eragile guztiekin adostua. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kulturako lanbideei buruzko lege proiektu bat bultza dezan. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hitzarmen Ekonomikoa berritzeko Estatua-  
rekiko negoziazioaren esparruan zerga-figura berriak sar daitezen eta Nafarroako erakundeak nazioarteko zerga-fofoetan egonen direla ziurta dadin. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da proiektu pilotu bat abian jar dezan, udako hilabeteetan eskola-jantokiak irekitzeko. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arau-tresna bat igor dezan Parlamentura, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 5/2020 Foru Legea aldatzeko. Osoko Bilkurak ezetsi du (5. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Barañaingo Oinarrizko Osasun Eskualdeko pediatriako arretari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Tuterako zainketa intentsiboen bigarren unitate mugikorrari eta Lodosako anbulantzia berriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, hondakin industrial ez-arriskutsuen zabortegeiei eta amianto-hondakinen biltegeiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Mugikortasun Jasangarriaren Plana onets dezan eta Bizikletaren Nafarroako Kontseilua sortzea bultzatzen.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko maiatzaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Mugikortasun Jasangarriaren Plana onets dezan eta Bizikletaren Nafarroako Kontseilua sortzea bultzatzen”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen dugu. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Nafarroako Mugikortasun Jasangarriaren Plan Zuzentzaile berria onets dezan, mugikortasun jasangarria bultzatzeko helburua duena.

2. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin (NUKF), Nafarroako Txirrindularitza Federazioarekin (FNC), bizikletaren erabilera sustatzeko lan egiten duten elkarteekin eta Nafarroako Trafiko Zuzendaritza Nagusiarekin batera, Bizikletaren Nafarroako Kontseilua sortzen, bizikleten eta gainerako ibilgailuen arteko bizikidetzatza segurua lortzeko, bai herri barruko bideetan, bai hiriarteko bideetan.

3. Nafarroako Mugikortasun Jasangarriaren Plan Zuzentzailean neurri egokiak sar ditzan, prebentzioak, beste osasun-krisi bat sortzen bada, COVID-19ak sortutakoaren antzeko ezauzgarriak dituen, prestatu egon gaitzen”.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da COVID-19aren balizko berragerpenen aitzineko kontingentzia Plan bat taxutu dezan, parte-hartzailea eta inplikaturako eragile guztiekin adostua.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko maiatzaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da COVID-19aren balizko berragerpenen aitzineko kontingentzia Plan bat taxutu dezan, parte-hartzailea eta inplikaturako eragile guztiekin adostua”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du COVID-19aren balizko berragerpenen aitzineko Kontingentzia Plan bat taxutu dezan, parte-hartzailea eta inplikaturako eragile guztiekin

adostua (osasun arloko profesionalak, zentro publiko eta pribatuak, lanbide elkargoak, sozietate zientifikoak, ordezkari sindikalak, herritarren ordezkariak, toki entitateak...) ”

2. Berragerpenen aitzineko kontingentzia planak honako alderdi hauek jasoko ditu, besteak beste: agertoki ezberdinetarako beharrezkoen estimazioa, agertoki batetik bestera igartzeko irizpide objektiboak, agertoki bakoitzerako ekintzak eta baliabideak, osasun arloko eta arlo soziosanitarioko profesional guztiei NBE egokiak bermatzeko neurriak, egoitza-zentroetarako berariazko plan bat eta planaren ebaluazioa ahalbidetuko duten jarraipenerako adierazleak”.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kulturako lanbideei buruzko lege proiektu bat bultzatzea dezan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko maiatzaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kulturako lanbideei buruzko lege proiektu bat bultzatzea dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Kulturako lanbideei buruzko foru lege proiektu bat bultzatzea dezan.

2. Partaidetza-prozesu bat ireki dezan foru lege hori idazteko. Prozesu horretan, inplikaturako eragile guztiak sartuko dira, Nafarroako kultura-sektorearen espezifikotasun bakoitza kontuan hartzeko.

3. COVID-19aren krisiaren ondorioz Nafarroako egoera pertsonalen eta proiektu artistikoen

egungo egoera izugarri larria dela oharturik, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du abiaraz dezan, ahalik eta lasterren, kultur alorrerako talka-plan bat, Estatuak taxututako neurrien osagarri izan dena eta, gutxienez, honako hauek jasoko dituen:

a) Sektore Publikoak Nafarroako artisten eta taldeen kontzertuak eta hainbat emanaldi eszeniko eskuratzea, etorkizunean egin daitezkeen, egungo murriztapenak gainditzen direnean.

b) Bertako kultura eta euskarazko ekoizpenak babesteko berariazko neurriak.

c) Kultur ekimen pribatuei laguntzeko neurriak taxutzea (jaialdiak eta abar), 17/2020 Errege Lege-dekretuaren II. kapituluako 4. artikuluan sektore publikorako jasotako enpleguetarako.

d) Nafarroako sektore publikoarentzako ezohiko zuzkidura bat, Nafarroako arte garaikidea eskuratzeko.

e) Kultur kontsumoa sustatzeko kultur bonuetarako formulak.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egoki diren ekintzak diseina eta gauzatu ditzan, kultur arloko artista eta profesionalei oinarrizko estaldura ekonomikoa emateko, baldin eta, artegintzan dedikazio eskusiboak izanik, ezin badira sartu Gizarte Seguran-

tzaren Lege Orokorra aldatzeko ezohiko neurrian, maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretuaren II. kapituluaren 2. artikuluan aurreikusitako langabezia-prestazioa jasotzeko, ezta autonomoen sektoreari laguntzeko laguntzetan ere”.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hitzarmen Ekonomikoa berritzeko Estatuarekiko negoziazioaren esparruan zerga-figura berriak sar daitezen eta Nafarroako erakundeak nazioarteko zerga-foroetan egonen direla ziurta dadin.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko maiatzaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hitzarmen Ekonomikoa berritzeko Estatuarekiko negoziazioaren esparruan zerga-figura berriak sar daitezen eta Nafarroako erakundeak nazioarteko zerga-foroetan egonen direla ziurta dadin”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Foru Gobernua premiatzen du, Hitzarmen Ekonomikoa berritzeko Estatuarekiko negoziazioaren esparruan, alde batetik, zerga-figura berriak sar daitezen, hala nola Google edo Tobin tasak eta mugaz gaindiko

BEZa, halako moldez non horien kudeaketa eta bilketa Foru Komunitatearen esku geratuko diren; eta, beste alde batetik, Nafarroako erakundeak nazioarteko zerga-foroetan egonen direla ziurta dadin.

2. Nafarroako Parlamentuak Foru Gobernua premiatzen du hilabeteko epean txosten bat aurkez diezaion Ganbera honi, enpresa-erakundeek eta hainbat gizarte-erakundek proposatutakoen antzeko zerga-neurriak aplikatzeak gure ekonomian izan lezakeen eraginari buruzkoa, egungo krisiaren ondorioz eragin negatiborik ez duten errenta altuak, enpresa-onurak eta ondare handiak, aldi baterako bada ere, zergapetzeko aukerari dagokionez”.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da proiektu pilotu bat abian jar dezan, udako hilabeteetan eskola-jantokiak irekitzeko.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko maiatzaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da proiektu pilotu bat abian jar dezan, udako hilabeteetan eskola-jantokiak irekitzeko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du proiektu pilotu bat taxutu

dezan, Eskubide Sozialetako Departamentuaren bidez eta Hezkuntza Departamentuarekin eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuarekin lankidetzan, udako hilabeteetan eskola-jantokiak ireki daitezzen, premia gehien duten adingabeei janaria banatzeko eta, hartara, menu osasuntsu eta orekatuak bermatzeko, ahal den neurrian Nafarroako lehen sektoreak hornitutako sasoiari sasoiak produktuak, tokikoak eta ekologikoa eskainita".

Iruñean, 2020ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arau-tresna bat igor dezan Parlamentura, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 5/2020 Foru Legea aldatzeko.**

### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2020ko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arau-tresna bat igor dezan Parlamentura, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 5/2020 Foru Legea aldatzeko. Mozioa José Javier Esparza Abaurrea

jaunak aurkeztu zuen eta 2020ko maiatzaren 19ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**F saila:**  
**GALDERAK**

## **Galdera, Barañaingo Oinarrizko Osasun Eskualdeko pediatriako arretari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Barañaingo Oinarrizko Osasun Eskualdeko pediatriako arretari buruzkoa. Galdera 2020ko otsailaren 21eko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak, Navarra Suma talde parlamentarioko foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko 20PES-28 galderari dagokionez, zeinaren bidez informazioa eskatzen baitu Barañaingo Oinarrizko Osasun Eskualdeko pediatriako arretari buruz, honako informazio hau helarazten dio:

1. Zertan da Barañaingo oinarrizko osasun eskualdeko pediatriako arreta?

OSASUN ETXEA	PROFESIONALA	NOTak 2020ko urtarrilaren 31n	ORDUTEGIA
Barañaín I	Blanca Erice Echegaray (pediatra) Emiliana Brieva Irurzun (erizaina)	1.021	08:00etatik 15:20ra.
Barañaín II	Blanca Esther Fernández García (pediatra) M <sup>ª</sup> Aránzazu Iñurrieta Erretegui (erizaina)	1.059	08:00etatik 15:20ra.
Barañaín II	Asunción Arazuri Irigaray (pediatra) Begoña González Iriarte (erizaina)	392	12:30etik 15:20ra. 12:00etatik 19:40ra.

Une honetan, hauxe da pediatriako egoera, profesionalei eta horietako bakoitzari atxikitako haurrei dagokienez:

2. Departamentuak zer berrantolamendu dabil gogoan? Zein da horren justifikazioa?

Gaur egun, Osasun Departamentuak ez du aurreikusita inongo berrantolamendurik egitea.

3. Zenbat haurri eraginen die aldaketak?

Aurreko galderari emandako erantzunaren ildotik, adierazi behar dut gaur egun ez dagoela berrantolamendu baten ondoriozko aldaketak pairatu beharko dituen haurrik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko martxoaren 10ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

## **Galdera, Tuterako zainketa intentsiboen bigarren unitate mugikorrari eta Lodosako anbulantzia berriari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tuterako zainketa intentsiboen bigarren unitate mugikorrari eta Lodosako anbulantzia berriari buruzkoa. Galdera 2020ko otsailaren 28ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera aurkeztu du (10-20/PES-00001). Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz helarazten duen informazioa:

1.- Nafarroako Gobernuak noiz ezarriko du Tuterako zainketa intentsiboen bigarren unitate mugikorra?

2.- Nafarroako Gobernuak noiz ezarriko du beste anbulantzia bat Lodosan?

Anbulantzia berri horiek osasun garraioaren lizitaziorako plegu berrietan aurreikusita daude. Alarma-egoeraren aurretiko prozesuan. Gaur egun, Osasun Departamentuak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu lehenbailehen erabilgarri izateko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 15ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

## **Galdera, hondakin industrial ez-arriskutsuen zabortegei eta amianto-hondakinen biltegei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, hondakin industrial ez-arriskutsuen zabortegei eta amianto-hondakinen biltegei buruzkoa. Galdera 2020ko otsailaren 28ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera bat egin du hondakin industrial ez-arriskutsuen zabortegei eta amianto-hondakinen biltegei buruz (10-20-PES-

00035). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Ingurumen baimen integratua duten zenbat zabortege daude foru erkidegoan hondakin industrial ez-arriskutsuak jaso eta gorde ahal ditzaketenak?

Gaur egun zazpi dira Ingurumen baimen integratua duten eta hondakin industrial ez-arriskutsuak jaso eta gorde ahal ditzaketen zabortegeiak, baina horietako bik beraiek sortutako hondakinak soilik jasotzen dituzte.

Dionisio Ruiz SL

Essity Hygiene Spain SL (berak sorturiko hondakinen gordailua)

Fagor Ederlan Tafalla SCoop. (Zabortegeia) (berak sorturiko hondakinen gordailua)

Gongorako hiri-hondakinen tratamendurako zentroa

Erriberako Mankomunitatea

Sakanako Mankomunitatea

Servicios de Montejurra SA - Cargar

Oro har, zenbat hondakin industrial ez-arriskutsu gordetzen dira Nafarroako kudeaketa publiko nahiz pribatuko zabortegetan?

2018an 221.866 t hondakin industrial ez-arriskutsu gorde ziren guztira Nafarroako zabortegetan. Horietan sartzen da Contenedores Iruña SL hondakin bizigabeen zabortegia (Carrascal), horrek ere baimena baitu arriskutsuak ez diren eta lixibatze eskasa duten hondakin industrial mineral batzuk jasotzeko (galdategiko harea...), baina ez du ingurumen baimen integraturik behar.

Kudeaketa publiko nahiz pribatuko zabortegeiren batean gorde ahal dira amiantoa duten materialeko hondakinak?

Amiantoa gordetzeko baimena izan duen zabortegei bakarria Dionisio Ruiz SL da; hala ere, 2018tik itxita dago hondakin mota hori jasotzen zuen biltegia.

Zenbat tona amianto-hondakin bota edo gorde dira Nafarroako zabortegetan 2004tik orain arte?

Zenbat urte bakoitzean? Zein zabortegetan urte bakoitzean?

2009az geroztik, guztira 5.316 t amianto-hondakin edo zuntz-zementu gorde dira Dionisio Ruiz SL zabortegean.

Urtea	Kopurua (t)
2009	31
2010	372
2011	843
2012	539
2013	501
2014	743
2015	1.080
2016	1.163
2017	44
2018	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>5.316</b>

Iruñean, 2020ko maiatzaren 20an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López